

FUNTSEZKO JARDUERAK

Ekoizpena:

Guk lehorgailu ergonomiko, eskuragarri eta iraunkor bat garatu dugu, ile mota desberdinetara eta erabiltzaileen beharrianetara egokitzeko diseinaturia, besteak beste, adineko pertsonentzat, desgaitasuna duten pertsonentzat edo sentsibilitate sentzoriala dutenentzat. Heldulekua eroso eta irristagaitza da, eta lehorgailua arina da nekea saihesteko; botoiak ukipenekoak dira, kontraste handiko koloreekin, sinboloekin eta Braille idazkerarekin, daltonismoa edo ikusmen-degaitasuna duten pertsonentzat identifikazioa eta erabilera errazteko. Bai lehorgailua eta euskarria, bai ontziratzea, material biodegradagarri eta birziklatuekin fabrikatuta daude, eta barne-osagaiek, motor digital brushless-a barne, iraunkortasuna, kontsumo txikia, zarata gutxiago eta ingurumen-eragin txikiagoa bermatzen dituzte. Aire-kanalak leunak eta zuzenak dira, barruko soinu-xurgatze geruzekin eta karkasa bikoitzarekin osatuak bibrazioak eta zarata murrizteko; gainera, aire-fluxua pixkanaka erregulatzen da piztean, erabilera segurua eta eroso bermatuz, baita sentsibilitate sentzoriala edo autismoa duten pertsonentzat ere.

Arazoak konpontzea :

Ile-lehorgailuak fabrikazioaren ondoren behar bezala funtzionatzen duela ziurtatzeko, erabilera-probak egingo ditugu, merkatura atera aurretik arazorik egon ez dadin bermatzeko. Produktua merkaturatzen denean, kutxan erabilera-argibideak dituen eskuliburua egongo da, eta QR kode bat ere bai; kode hori eskaneatzean, ile-lehorgailua nola erabili azaltzen duen bideo bat ikusi ahal izango da.

Eskuliburuan zein bideoan bezeroarentzako arreta-zerbitzurako posta elektronikoa helbidea eta telefono-zenbakia agertuko dira. Produktuak akatsen bat badu, konponketa edo, behar izanez gero, itzulketa guk kudeatuko dugu.

Azkenik, ile-lehorgailuak bere bizitza erabilgarria amaitzen duenean, bezeroei jakinaraziko diegu guri bidal diezaguketela. Trukean, etorkizuneko produktuetan promozioak jasoko dituzte, gailuaren piezak birziklatuko baititugu, eta horrela ingurumena zaintzen lagunduko dugu.

Plataforma edo Sareko jarduerak:

Lehenik eta behin, webgune bat sortuko dugu, non lehorgailua eta haren ezaugarri bereizgarri guztiak deskribatuko diren, baita gure produktuen prezioa ere, eta bertatik erosi ahal izango da. Gainera, webgunean bezeroarentzako arreta-zerbitzuak, erabilera-eskuliburua eta azalpen-bideoak (erabiltzaile mota guztietara egokituta) agertuko dira. Halaber, galdera ohikoenei erantzuteko atal bat ere sortuko dugu. Jakina, sare sozialetan kontuak sortuko ditugu gure produktua sustatzeko eta bezeroen iritziak jasotzeko.

Ile-apaintzaileekin, estilistekin, osasun-arloko profesionalekin eta zaintza-zentroekin aliantzak sortuko ditugu. Bestalde, desgaitasuna duten pertsonen elkarteekin, egoitzekin, ospitaleekin, osasun-zentroekin, unibertsitateekin eta ikerketa-zentroekin elkarlanean arituko gara, haien bidez erabilera-probak eta azterlanak egin ahal izateko eta diseinua hobetzeko. Gure produktua gure webgunearen bidez erosi ahal izango da, baina baita denda fisikoetan

ere, hala nola Mediamarkt, El Corte Inglés eta antzekoetan. Era berean, diseinu, irisgarritasun eta jasangarritasunari buruzko azoketan parte hartzea ere planifikatuta dugu.

Azkenik, bermatuko dugu gure webgunean zein sare sozialetan gure ziurtagiriak (ziurtagiri ekologikoak, ingurumen-kudeaketakoak, segurtasun elektrikoari buruzkoak, produktuaren kalitateari buruzkoak, etab.) agertzea, konfiantza eta gardentasuna sortzeko.